

GAUR ZABALDUKO DIRA HERRIKO HAUR JOLASTOKIAK

- **Erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna bermatze aldera, parkeak egunean bi aldiz desinfektatuko direla jakinarazi du Udalak**
- **Edozein kasutan, jolas espazio horietan ere erantzunkidetasunez eta arduraz jokatzeko deia luzatu du Udalak, atzera pausorik eman behar ez dezagun**

Gaurtik aurrera EAEn “normaltasun berria” deritzona estreinatuko dugu, hau da, amaitutzat emango da osasun larrialdi egoera, nahiz eta, aurrerantzean ere, ezinbestekoa izaten jarraituko du osasun eta segurtasun neurriak bete eta errespetatzen jarraitzea.

Normaltasun berriarekin, baina, zabalik geldituko dira, gaurtik aurrera, Lezoko haur jolastokiak. Horiek itxita mantendu dira orain arte infekzio-foku zirelakoan, baina gaurtik aurrera, haurrek berriro gozatu ahal izango dute txirristez, zabuez edota bestelako jolasez. Espazio horiek guztiak, gainera, egunean bitan desinfektatuko dira erabiltzaile guztien segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Edozein kasutan, horri lotuta, jolastokietan erantzunkidetasunez eta arduraz jokatzeko deia luzatu du Udalak, jende pilaketak saihestuz, eskuak maiz garbituz eta ahal den neurrian, segurtasun distantziak errespetatuz.

LOS PARQUES INFANTILES ESTARÁN ABIERTOS A PARTIR DE HOY

- **El Ayuntamiento desinfectará dos veces al día dichos espacios con el fin de garantizar la salud y la seguridad de las y los usuarios**
- **No obstante, el Ayuntamiento pide que se actúe con responsabilidad y prudencia para no tener que retroceder y dar pasos atrás**

Hoy mismo, la CAV estrenará la llamada nueva normalidad, poniendo así fin a tres meses de estado de alarma. No obstante, en esta nueva etapa de convivencia con el COVID-19, seguirá siendo imprescindible cumplir con las distancias y normas de seguridad conocidas hasta ahora.

En cualquier caso, la nueva normalidad trae consigo diversos cambios, uno de ellos la reapertura de los parques infantiles del municipio, que se dará a partir de hoy mismo. Estos espacios han permanecido cerrados hasta ahora por tratarse de un foco de infección pero en esta nueva etapa, las y los niños podrán volver a disfrutar de los toboganes, columpios y demás juegos. Dichos espacios, además, serán desinfectados dos veces al día para garantizar la salud y a seguridad de sus usuarias/os.

En cualquier caso, el Ayuntamiento pide que se actúe con responsabilidad y prudencia en dichos espacios, evitando las aglomeraciones de gente, limpiándose las manos con asiduidad y cumpliendo, en la medida de lo posible, con la distancia mínima de seguridad.